

ERAKUNDEAK

Gizona ez da bakarrik bizi. Ez zaio on bakarrik bizitzea. Gizartean bizi da. Gizartean bizi behar du gizon izan nahi baldin bada.

Itsasora erortzen den ur tanta itsaso bilakatzen da. Itsasoa eta ur-tanta ez daitezke berezi. Gizartean bizi den gizonak gizon irau behar du, ordea. Itsasoa galdu den ur-tantaren antzera ez daiteke gal.

Hori gerta ez dakion gizarte hori antolatuta behar du. Gizabidezko erakunde batzuk behar ditu. Gizonak gizarte horretan dituen premiak zuzentzen eginalahal egingo dituzten erakunde batzuk, alegia.

Premia hoienez zerbitzuan diharduten erakundeak behar ditugu. Erakundeak ez da erakunde horretan buru diren zerbitzurako. Erakundeak eta erakunde horretan diharduten guztiak beste guztien zerbitzuan ihardun behar dute.

Halako erakunde buriaragizatik gizon hura ken zezatela eskatu genuen behin. "Urte askoan lan egin du, zahartua eta ezereztua baldin bada ere, pertsona da, ez diogu minik eman behar, erruki piska bat zor zaio" erantzun zitzaigun. Eta gizon zahar eta ezereztu haren esku zen jendeari ez ahal zitzaion errespetorik zor? Milaka lagunek nozitu behar ahal zuten bati minik ez ematearren?

Erakunde bateko buruzagi bat ez galtzearen oso jokabide beldurtia hartu dute jaun batzuek oraindik orain. Buruzagien zerbitzuan ala jendearen zerbitzuan izan behar dute erakundeak? Erakunde sendoez ez dute gizon bakar batean oinarriturik gon behar denik eta gizonik argiena, balioetsuena eta maitatua baldin bada ere.

Gizona eta gizarteak era askotako alderdiak eta premiak dituzte: kultura, ekonomia, jolasa, politika eta abar.

Hizkuntza zaindako duen erakunde bat behar da. Dugun erakundeak ahuldu, baztertu eta desegin nahi izatea astakeria litzateke. Zenbait hizkuntzaren egoera are eta haundiagoa. Komunikabideetan, eskolan, unibertsitatean oraindik sartu ez den hizkuntzak beste edozeinek baino babes haundiagoa behar du. Eta erakunde honek beste erakunde batzuen hutsuena eta zuloa bete beharko du nolera bit. Zenbait talderen iritziak eta interesak aurrera ateratzearen ez daiteke erakunde hau zapuztu gure egoran.

Ikastolen erakunde gorpuzten eta zabaltzen ari da, zorienez. Irakaskuntza ingurumarioko beharrei erantzungo dien erakunde sendo bat behar dugu. Erakunderik gabe ez daiteke mila arazo konpon.

Kazetaritzak ez du herriarekiko duen egitekorik betetzen. Hainbeste aldizkari xixtrinak ez diote herriari erantzungo. Herrian asko zabalduko eta irakurriko litzatekeen aldizkari erraz, herriko eta zentzuzko bat beharko genuke. Aldi berean, jende ikasiagoari erantzungo liokeen beste bat landuagoa, sakonagoa eta trinkoagoa beharko genukeela dirudi.

Herriko gizatalde guztiak behar dituzte beren erakundeak; langileak, dendariek, ikasleek, irakasleek eta abarrek.

Eta azkenik talde, ekintza, asmo eta gaintzekoei indarra, oreka argia, bizia eta elkarbideak eskainiko lizkiekeen beste erakunde zabal eta haundi bat beharko litzateke. Bestela ez daiteke luzaroan lan sakan eta iraunkorrik egin. Begi luzea eta argia behar da. Begi luze eta argia duen erakunde behar dugu.

Bada zeregirik. Gizona, itsasoa galtzen den ur-tantaren antzera, gizarte zurrunbilotsuan gal ez dadin hel diezaigun lanari orpo orpotik.

Masa erakunde baten premia

EZIN ELKARTUA

Esan eta esan ari gara denok, elkar hartu behar dugula. Lehen-bailehen eta derrigor denok elkar hartu behar dugula. Doi-doi egongo da, azken urteotan gehiago eskatu den gauzarik hori baino. Baina gure kolpe izugarriek ere ez dute lortu gu elkartaritzea, gure guztion zorizagitean ezpada. Edo ezta hor ere.

Gero, azkenean elkartuko gizona ere, ematen zuten. Trenak jantzia ihes egin zigulakoan, eta bat-batean bihar zelakoan —denok bildurrez espero dugun biharko eguna hasi zitzaigulakoan alegia— zerbaite ikaratu zen jendea inguruotan. Aurrekalde ona da, izan ere, denok irabazi nahita denok gaitzea... Askotan gertatu zaigu hori. Eta bazuridien, ezinari leku eginez, batzuk eta besteak pronto zude-la, dena ez bazen, zerbaite bederen irabaztera elkarrekin joateko. Larritu zen jendea. Hasi zen mugitzen. Lasaitu zen berriro. Eta betiko porrusalda bera egin da.

Saioak mila aldiz egin dira. Herstualdiaren baten larrian gehienak. Eta ez da sekula burubide iraunkorrik irabaki ahal izan. Ez mu eta ez ma. Onewan ere, papertxoren bat elkarrekin ateratzera ailega gintzeke, eta kitto. Ekinbide bat elkartasunean bururatzera, ametsarako ere zaila da, behin eta berriro ikusi ditugunak ikusita. Benetan etsitzeko litzateke, jokabide diferentzia askoren azpian funtsezko batasun bat badagoela, igarriko ez bagenu, formula bezala egokitu ezin dugun batasun edo ugaritasun horren sustraietan.

Ikusita dago, halare, ez dugula elkar hartu nahi. Eta, beraz, beharrek ez bagaitu behartzen behintzat, ez dugula behin ere elkar hartuko. Errazago elkartuko gara Herodes eta Pilatorekin, elkarrekin baino.

ZER EGIN?

Zer egin, orduan? Ez du me-rezi batasuna eskatzen eta itxaroten jarraitzeak, ondorenik ez du eta inondik.

Batasunik balégo —eta sekula ez du inork espero izan diferentziarik gabeko batasunik— buru bat ere balegoke. Eta segimenerik ere izango luke, ez ni-rekin eta ez zurekin hitzemandako dagoen jendearen artean.

Gogara dezagun, inoiz ez direla aukera guztiak batera eskuratu erortzen. Ez gaur, eta ez bihar. Bihar izan genitzakeen aukera guztiak ere, bospasei puntu zuzentzeko aukerak izango dira, eta beste zenbait bideratzekoak agian, bultzaka segitzen badugu. Zerbaite badelakoan geunden, dena ez bada ere. Baina dena ez bada, batzuentzat deus ez da, dirudienez, eta asko ez bada ez aski, edo ez dakit zer: batek besteak baino gehiago nahita, edo besteak baino gutlago nahita, azkenean behintzat ez dute bata besterik nahi.

Kontuak atera ditzagun, bihar nola gerta litezkeen gauzak, eta bakoitzari zer toka dakioken, hartzekodun asko batera altxa-

tuko direnean, bakoitzak bere partea eta parterik hobereana eraman nahita. Esijitzen ez duenari, ez zaio ezer tokatuko, noski; eta ezin ezer esijituko du, zeinek esijitu ez dadukan. Beharbada Euskal Herria egoera dohatsu eta zoriontsu hortantxe kausituko da...

Politika guztien indarrak eta abileziak egun hari begira neur-tzen dira.

Gogara dezagun, orobat, hain zuzen egun hari begira biziki inportantea agiri den beste puntu bat: propio politikoak, nahitaez, eskukada bat baino ezin izan litezkeela herri batetan. Edozein herriatan hori. Beste guztien politikazko jokabide eta burubideak konfiantzazko boto batetan oinarritzen dira. Idazleek, irakasle eta ikasleek, langileek, enpresariak, lanbide liberala-koek, eta teilapeko gehien-gehienek lurbiraren iparreko polo-txortenetik hegoakoraino, ez dute eritzi politiko guztiko bat bere osatzeko erarik, bakoitzak bere aldetik. Eta beren erabakiak erreferentzia batzuen arabera hartu behar izaten dituzte. Berrogeita hamar mila talde, talde eta talde, bakoitza bere aldetik eta denak okasioan, dabilazan tokian, ordea, zeini arraio eman behar dio hankabiko triste batek bere konfiantzazko botoa? Alderdi asko egotea da Alderdirik gabekoak ugaritze-ko metodo onena, aukera nahas-ten eta zailtzen da ta. Segime-rik eta gizataldeen sostengurik gabeko politikoak, berriz, triki-traku demokratikoetan tinkota-sunik ere ezin izan dezake.

ASPERTZEN

Hor dago, ba, koxka. Jendea hainbeste eztabaida eta siesiorekin aspertzen hasia zela, hainbeste zuhurkia dotrinariorekin nazkatuta zebilela; aspaldi salatu zen. Ohartarazi zeharrik ere jadanik ez dago bestea: bere kultur lanetan edo, nonahi, geroz eta jende gehiagok berekisa ihardun nahi duela, «politikari sartu gabe», inorekin lotu gabe hain zuzen. Eta ez da hori bakarririk: inorekin lotu gabe ego-tea kasi prestijiozko gauza bilakatzen ari bait da, eskolatuenean artean bereberki. Eritzi berega-intasunaren eta buru sanoaren seinale antzera. Beraz, aisa gerta liteke, politikoez berek, politika egin nahita, jendea des-politizatzea.

Gogara dezagun hirugarren puntu bat, oraindik. Beti esan da, galduta gaudela, elkar hartzen ez badugu. Hori egia baldin bada, honez gero galduta gaudela aitortu behar, beste zerbaite asmatzen ez badugu.

Kinka larri honetan irtenbide zail eta arriskutsu bat probatu beharra dago, bidezkoena behar zuenak —bataunak— inposible dirudienez gero. Guztion batasunean pentsatzerik ez badago, masa erakunde zabal batetan pentsatu beharko da, posibillimo batetan oin hartuta.

Hor nonbait, batzuen eta bestearen artean, elkartu ezin diren muturren artean, sortuko da. Aski zabala beharko du barrutik. Hain zuzen, haren egitekoa ez da izango inori lekua harrapaztea, elkartu ezindako muturren

artea betetzea baino. Ahalik eta jende gehienak baitesteko moduan agertu beharko du.

Halako edo antzeko masa erakunde baten premia ere mila al-diz aipatu da, aipatu.

IRTENBIDEA

Egingarria ote da? Nolanahi ere, beharrezkoa baldin bada, ezin geldituko gara gauzatzen ahalagindu gabe. Eta premiari benetan baldin badago, egin ere, egingo da, gaur edo bihar. Geure esku, goizago ala berandago ibili. Beraz, lehenengoa, premia izatea da. Premia ikustea, gero, eta saiatzea.


Ikusi besterik ez dago, zenbait jende dabilen ez batzuekin eta ez besteekin identifikatu ezinda, eta ez kausa esternoengatik bakarrik. Hori bai, batzuen gertuago sentituko da, besteen baino. Eta, halare, ez zaio nonbait inor guziz egokitzen. Batzuen ideiak eta tradizioak izango dira, atzeratu dituenak, edo bestearen historia eta jokabideak. Ezbaian eta keko-meko gelditu dira behintzat.

Beste zenbait jende hainbeste-tetan ere ez dago: zegoen zegoenetik aterako zuenik ez bait da agertu orain arte. Hori sumatzen da edonolako marjinetan artean: etorri artean; Arabako laborari artean; edo eta Foruei, edo tradizio foruzaleari, atxeki-atxekita jarraitzen zaizkien nafarren artean, esate baterako.

Beste batzuek, oraindik, lanean gogotik ari badira ere, «fronte» batetan ikusten dituzte beren buruak: kultur frontean, langile frontean. Berak sindikato bat edo direla, esango dizute, edo koperatibistak direla, baina Alderdirik ez. Ongi da. Baina sindikato batek ere, nahitaez, bitziza publikoan Alderdiaren batzuei erreferentzia ezisistitu behar izaten du, eta derrigor izango du Alderdiaren bat besteak baino «bereagoa», **pendant** bat, uztarriko bat, biek bategin ez arren. Sindikatoek eta Alderdiek elkarrengandik dependitzen dute.

Ez dago puntutan zer luzatu. Guzi honekin, delako erakunde-aren premia ezetik, hura burutzeko posibilitateak ere agiri zaizkigula, ematen du. Izan ere, gizarte honetan hartarako lekuri gelditzen ote den, galdetuko da. Zoko aprotetagarri denak ez ote dauden hartuta. Baina, lekuri badagoela ematen du. Batez ere, lehendik badauden talderen batzuek eginkizun honetan parte hartu nahiko balute, era batera edo bestera.

Joxe Azurmendi



ARGIA

JABEA:
Nafarroa, Kantauri eta Aragoiko Kaputxueak.
Burlada, Kale Nagusia, 60-1
Beneña, Gende, 22
Telf. 41-45-48

Ondozlaria: Kalea eta Euzko leurriz

ARPISE SARIA:

Berrua	400 peseta
Korreo batasun-tabe herrietan	620 peseta
Azteritake herrietan	400 peseta
Alez	Aldiz aurretik galdetu
Salmenta (ale bakeliza)	10 peseta

Moldiztegia eta idazketele:
«Gráficas Navas»
A. Adela, I. IRUIREA
B. L.: NA. 88-1969

